

## Anje DUHALDE

kantaria

## «Georges Brassensek dit irakatsi testuaren garrantzia»

Anje Duhaldek atera berri duen diskoan Georges Brassens okzitaniarraren 14 kantu egokitu ditu. Diskoarekin, 1981eko urriaren 29an hil zen eta hainbeste miresten duen kantaria omendu nahi izan du.

Nora Arbelbide/**BAIONA**

Georges Brassens olerkari okzitaniarrak belaunaldi berriko artista anitzengan eragin handia ukan du. Hainbat bertso ukan ondoren, hemendik aitzina Anje Duhalderen diskoarekin euskarazko bertsoa ere badu. Baina beste disko batzuk ez bezala, Duhalderena ez da moda kontu bat. Brassensekin hogeituro urteko bidea egina du, diskoa atera antzin.

•Zergatik George Brassens?

Hark dit irakatsi testuak kantuan duen garrantzia. Musikak eta testuak osatzen dute kantu bat. Musika on bat testu txar batekin kantu txar bat izaten da. Alderantzikoa ere egia da. Bien artean gakoa bilatu behar da. Brassensek kasik obra osoan lortu zuen giltzaren harrapatzen. Alde horretatik, Brassensen egokitzeak anitz ekarri dit.

•Haren mirestetik haren kantuak egokitzea nola pasatu zara?

Hastapenean kantuak euskarara egokitzea joko bat zen. Hasiera batean, neure buruari egiten nuen pario bat izan da. Emeki-emeki obsesio bihurtu da. Bere kantuak egiteko manera, bere zehaztasuna, bere hitz zizelkatuak, beti harriria gelditzen nintzen. Umiltasun lezio eder bat hartu dut. Geroari begira ematen dizu pentsatzera. Betidanik uste ukan dut kantu bat ez dela sekula ere bukatua. Nik nireak berriz entzutean, ardura hau aldatu edo hura hobetzeko nahiarekin gelditu naiz. Brassensenak hartzen dituzularik, ikusten duzu hastapen bat eta bukaera bat badutela, biribilak dira. •Norbaitek erraten balizu Brassensen kantuak Brassensenak direla eta beraz egokiezinak, zer erantzun zenuke?

Ez dut Brassens euskalduna izateko pretentsiorik. Nire oparirik handiena Euskal Herrian norbaitek konpaktuari esker Brassensen ezagutza ukatea litzateke. Publiko jartzeko intentziorik gabe hasi nintzen egokitzen. Diskoa egin dut alde batetik hogeituro kantu banituelako, aitzineko diskoetan batzuk jadanik grabatu nituenak, kontzertuetan ere ematen nituenak. Baina huts egin nuen. Musikarekin apaindu nituen, beharrik ez zutelarik. Konpaktua huts horren erreperatzeko ere egin dut. Horregatik grabatu dut publiko hertsu baten aitzinean. Brassensek egiten zuen bezala.

•Brassens engaiatua zen. Zuri ere ezinbestekoa zaizu kantu baten engaiamendua...

Zure gizartearen bozeramaile izan behar duzu. Nik uste dut biziki garrantzitsua dela zure ikuspegi filosofiko eta politikotik hastea zerbait egiterakoan. Zerua ederra dela urdina denean, edo beste holako ebidentziak kantatzeak ez dakit balio duen. Brassens epikuriano eszeptiko baikor bat zen. Bizia gozaten zuen alde guzietatik. Eszeptikoa, ikuspegi zorrotz bat zuelako. Satira konstruktibo batez apaintzen zituen bere pentsamoldeak. Mila aldiz nahiago dut aurpegi hori ezinez eta aurpegi estetiko baikor bortxatua.

**•Bere salaketek gaur egun ere balio dute?**

Badira. *Belar txarra (La mauvaise herbe)* kantua, adibidez, bigarren gerla mundiala bururatu zelarik, Europa askatua izan zelarik, denek gerrazaleak goستن zituzten. Hura, aldiz, antimilitarista gisa agertzen da kantu horretan. Gaur egungo egoeran, kantu horrek badu bere gaurkotasuna.

**•Salatzen segituko duzula diozu. Baina salaketa beren kantatzeak errepikatzera ekar lezake...**

Nire beldur handia hori da. Baina beti bada aukera ez errepikatzeko. Pixka bat margolaria bezala da. Batzuetan itsasoa urdin ikusten du; besteetan, aldiz, berde. Beste batek, aldiz, zuri. Irudiak zeure baitan lantzen ahal dituzu. Hitzekin berdina da. Badira mila metafora. Beti badira gaiak, inspirazioa da beharrezkoa. Gaur egun bada non zer erran, non zer aipa.

**•Beste engaiamendu bat euskararena izan da betidanik. Errobirekin, kontratu bat ez zenuten onartu, ingelesez eta gaztelaniaz kantatzea galdegin zizueten...**

Euskalduna bainaiz, naturalagoa zait euskaraz kantatzea. Ni ere saiatu nintzen gaztetan El Fuego deitzen zen talde batekin ingelesez kantatzen. Baina lagunek erran zidaten ingelesez kantatzen nuelarik euskaraz kantatzen ari nintzela zirudiela. Beraz, errazago baitzen, euskaraz kantatzen hasi nintzen.

**•Oro har rocka aski babestua izan da, euskarak beti leku garrantzitsua ukan du, ez?**

Bai, dudarik gabe rockak anitz egin du euskararentzat. Dantzaldiei dagokienez, Akelarrerekin zerbait egin genuen euskalduntzeko. Beharbada gu izan baikin lehenak dena euskaraz egiten genuenak. Hala ere, nabari da gero eta gehiago erdara entzuten diren taldeak kontzertu eta dantzaldietan.

**ENGAIAMENDUA**

«Zerua ederra dela edo horrelako ebidentziak kantatzeak ez dakit balio duen»

**SORKUNTZA KRISIA**

«Iparraldea beti izan da kantari eta rock taldeen sehaska. Gaur egun ez da»

**HERRI KULTURA**

«Kulturak herritik etorri behar du, herriak kontrolatu eta bideratu beharko luke»

«Harritzen nau egungo taldeen arteko uniformitateak»

Nora Arbelbide/**BAIONA**

Errobi taldearen garaian zein gaur egun, Anje Duhaldek bere kontzertuen %80 Hegoaldean egiten ditu. Baina orain apenas entzuten den Iparraldeko talderik Hegoaldean.

**•Euskal rockaren hasiera Iparraldean gertatu zen, Errobi, Minxoriak eta Niko Etxartekin. Haiek zabaldu zuten Hegoaldera. Azken bi hamarkada hauetan, aldiz, Iparraldekorik ez da kasik entzuten.**

Iparraldean entzuten da Hegoaldeko jendeek Ipar Euskal Herriko musika ez dutela preziatzen. Ez dut uste hala denik. Beharbada Iparraldekoek beharko lukete beste forma batera aurkeztu egiten dutena. Hegoaldekoek beren aldetik interes gehiago jarri beharko lukete hemengo gauzekin.

**•Zergatik hori?**

Azken finean merkatu bitxi batetaz ari gara. Europa osatzen ari da baina itxuraz legeen aldetik Francoren garaian bezala segitzen dugu. Zerga aldetik, diru bilakatze aldetik eta beste. Horrek ondorioak baditu. Kantariak, idazleak, oro har sortzaileak, horren ispiluak gara. Aginte politikoez zer ikusi handia dute.

**•Duela 25 urte baino zailagoa ote da muga gainditzea?**

Muga bat bada fisikoki eta psikologikoki. Baina ez da muga arazorik handiena. hori baino gehiago, oro har Euskal Herri guzian kontzertuetan ari direnak zinez guti dira. Beharbada disketxeen hutsa da. Nik sentitzen dut baina Errobi garaian bezala segitzen dut. Nire kontzertuen %80 Hegoaldean egiten ditut. Ni ez naiz beharbada lekuko hoberena horren aipatzeko.

**•Hegoaldean hain ongi saltzen duzunez, ba ote duzu aholkurik?**

Ez dut errezetarik. Behar bada urteak hor garelako... Gaur egun gazte batentzat ez da gain erraza izen bat lortzea Euskal Herria osoan. Baina niri eta beste batzuei ere, gehiago axola zaigu Iparraldeko sorkuntzaren egoera. Iparraldea izan da beti kantari eta azken urte hauetan rock taldeen sehaska bat. Izan da. Gaur egun ez da gehiago.

**•Zer nahi duzu erran horrekin?**

Duela urte bat Gazte Leiho Maketa lehiaketaren epaimahaikide izan nintzen. Harritua gelditu nintzen nolako uniformitatea bazen taldeen artean, salbuespen batzuk kenduta. Denek molde berean hartzen zuten rocka. Maiz hegoaldeko ereduak hartuz. Horrek ere behar bada eragina badu Hegoaldearen interes eskasean.

**•Hegoaldea eredutzat hartzea txarra al da?**

Ez dut erran txarra denik. Hortik sortzen ahal zen zerbait. Baina Iparralde honetan ez da izenik atera azken 15 urteetan. Ni oraino zain nago. Desiratzen dudana gauza handienetarikoa bat da hori; bai rockean baita kantagintzan ere. Badira ibiltzen ari direnak hinki-hanka erdipurdi. Artista parrasta batek disko bat edo bi egin dituzte, baina...

**•Sorkuntza krisia ote?**

Sorkuntza bada baina... Behar bada bideratze eskas horretan gaude gu Ipar Euskal Herrian. Behar bada globalizazioaren ondorioak bizitzen ari gara. Hemen, nik uste martxa lasai batean sartu gara. Batez ere azpiegitura batzuk sartu direnetik. Horiei uzten diegu kulturaren eraikuntza. Baina, kultura herritik etorri behar den gauza bat da eta herriak beharko luke hori kontrolatu eta bideratu, nahiz eta laguntza guziak ukan behar dituzten.

**•Errobik eta Minxorik taldeak euskal rocka sortu zuten, baina egun ahantziak dira gazte gehienentzat. Kortatu, Itoiz, Hertzainak eta beste taldeek hartu dute protagonismoa.**

Gizarte baten aldaketa bat izan zen 80ko hamarkadaren hasieran. Normala den bezala. Aldakuntzak izatea gauza ona da. Beste mundu batera eraman. Azken finean gu Iparraldean geunden, beste galaxia batean bezala. Ondotik hasi dira hemengo taldeak haien musikatik hartzen.

**•Alderantziz, rock erradikaleko taldeak dira oraindik entzutetsuenak gaztetxe eta tabernetan, baita haren  
espiritua jaso duten talde gazteak ere...**

Horrek erakusten du justuki, ez dela deus berririk sortu. Su Ta Gar ez ezik. Beste hainbat sortu badira  
ere, ondoren desegin dira.

---